



Egoera ekonomikoa eta Merkatuak **ASTEKO LABURPENA**

2018ko martxoaren 5etik 9ra arteko astea

➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

➤ **GURE IKUSPEGIA**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: PMI KONPOSATUA



Datuaren analisia


urogunean, **otsaileko behin betiko PMI konposatuak** lau hamarren egin zuen behera, 7,1eraino, hasierako aurreikuspenetik. Zerbitzuen PMIa 56,2 puntutakoa izan zen, atariko akurketa baino bost hamarren gutxiago eta urtarrilekoa baino 1,8 puntu gutxiago. Maila oso altu atetik gentozen eta motelaldi txiki bat besterik ez da. Aurreikuspenen arabera, gainera, enpresardueraren erritmoak ona izaten jarraituko du datozen hilabeteetan.

Adierazlearen azalpena

urogunekeo zerbitzuen eta manufakturen sektoretako 5.000 enpresari baino gehiagori hilero bidaltzen zaien galdetegi baten erantzunetatik lortzen da PMI Konposatua. Bi sektore horien aldean ekonomia-egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu onetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuratzen ari den seinale.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: MANUFACTURENA EZ DEN ISM_a



Datuaren analisia


zerbitzuen sektorearen jarduerak moteltzera egin zuen otsailan, enpleguaren hazkundera eten egin aitzen bat-batean. Hala ere, eskari berrien hazkundera ikusita, duela 12 urte eta erdiko maximoetan, horren azpian sektoreak sendo jarraitzen duela ondoriozta dezakegu. **Manufacturena ez den jardueraren indizea** 0,4 puntu jaitsi zen, 59,5eraino. Enpresen konfiantza, bestalde, oso maila altuan mantendu zen.

Adierazlearen azalpena

Manufacturena ez den ISM indizeak hileroko erostaketen profesionalen eta enpresetako exekutiboekin egiten zaien inkesta bat du oinarri. Zerbitzuen sektorearen jardueraren maila neurtzeko balio du, sektore horretan egiten diren erostaketen bidez. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, estatu baterako, BPGd-arena. Estatu Batuetako kontsumoaren KPIaren zati handi baten isla ere bada. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beharrezkoa bada, ordea, ekonomia uzurtzen ari den seinale.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

IAPONIA: 4. HIRUHILEKOKO BPGd



Datuaren analisia


aponian, **laugarren hiruhilekoko BPGd-a** aurreikusitakoa baino handiagoa izan zen (% 0,4 vs % ,2), eta datu urtekotua % 1,6koa izan zen. Bada, datu horrek hazkundearen sendotasuna berretsi jen, zortzigarren hiruhilekoz jarraian hazi baita ekonomia.

Adierazlearen azalpena

arne produktu gordina (BPGd) herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko rabilzten den adierazle ekonomiko bat da. Herrialde batek edo ekonomia batek ekoizten dituen zken zerbitzu edo ondasunen batuketa eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean rregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztakoak izan behar dute, ala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

TXINA: KPI



Datuaren analisia

Pla % 2,9 igo zen otsailean, iazko hil beraren aldean, azken bost urteetako daturik altuena. tsailleko datua urtarrileko % 1,5eko urte arteko hazkundearen gaintik geratu zen; daturik altuena 2013ko azarotik. Urtarrilarekin alderatuta, elikagaien prezioek nabarmen egin zuten gora otsailean, % 4,4raino (urtarrileko % 0,5eko jaitsieraren aurrean), Ilargiaren Urte Berriaren ospakizunengatik. Baina, gorakada horrek zerikusi handia izan zuen analistek "urtaroko distorsioengatik" zuhurtziaz artzen duten datu horiekin.

Adierazlearen azalpena

Plaila hileroko prestatzen da. Etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo gutxitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreik.
03/13	Espainia	Hileko KPIa	% 0,1
03/13	Estatu Batuak	Hileko KPIa	% 0,2
03/14	Txina	YTD YoY industria-ekoizpena	% 6,2
03/14	Alemania	Hileko KPIa	% 0,5
03/14	Espainia	Urte arteko xehakako salmentak	--
03/14	Italia	Hileko xehakako salmentak	--
03/14	Eurogunea	Hileko SA industria-ekoizpena	-% 0,5
03/14	Eurogunea	QoQ enplegua	--
03/14	Estatu Batuak	Hileko txikizkako salmenta aurreratuak	% 0,3
03/14	Estatu Batuak	MoM txik. salmentak autorik gabe	% 0,4
03/15	Frantzia	Hileko KPIa	-% 0.1
03/15	Estatu Batuak	Manufakturen inkesta New York	15.0
03/15	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	225k
03/15	Estatu Batuak	Negozioen egoera Philadelphiako Fed	23.0
03/15	Estatu Batuak	Etxebizitzaren merkatuaren NAHB indizea	72
03/16	Japonia	Hileko industria-ekoizpena	--
03/16	Espainia	YoY lan-kostuak	--
03/16	Eurogunea	YoY azpiko KPIa	% 1,0
03/16	Eurogunea	Hileko KPIa	% 0,2
03/16	Estatu Batuak	Hasierako eraikuntzak	1288k
03/16	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berriak	-% 2.9
03/16	Estatu Batuak	Hileko eraikuntza-baimenak	-% 4.1
03/16	Estatu Batuak	Hileko industria-ekoizpena	% 0,3
03/16	Estatu Batuak	Gaitasunaren erabilera	% 77.7
03/16	Estatu Batuak	Sentimendua Michiganeko Unibertsitatea	99.0
03/16	Estatu Batuak	Oraingo egoera Mich. U.	--
03/16	Estatu Batuak	Aukerak Mich. U.	--

JRTSAK:

opera orokorrak munduko burtsa nagusietan, neriketako enpleguaren datu onagatik eta AEBekin erlazio komertzial bat hasteko arriskuaren beldurra gorabehera. Astearen amaieran, AEBek ezarritako behin-betiko muga-zergak ezagutu ziren: % 25ekoa altzairuari eta % 10ekoa aluminioari. Bada, Kanada eta Mexiko murrirak horretatik kanpo geratu ziren, NAFTA ituna berriz negoziatu bitartean; beste herrialde batzuk ere libuespenen zerranda horretan sar daitezke. Politikari berragira, Italiako hauteskundeetako emaitzek argibetasun ekonomikoa ekarri zuten, alderdi erregulatzailek sistemak gobernua osatzeko akordio bat egiteko bideak eraginda. Alemanian, aitzitik, egoera baretu ez zen, sozialdemokratek oniritzia eman baitzuten erreguladoreekin gobernu-koalizio handi bat osatzeko proposamenari. Banku Zentralei dagokienez, EBZk ez du bere diru-politika aldatu, eta bonuak erosteko programa luzatzeko aukera bere diskurtsoak ateratzeko abakiak ustekabeen harrapatu zuen merkaturatzen. Japoniako Bankuak ere ez zituen aldatu gaur egun jarrean dituen politika hedakorrak.

ERRENTA FINKOIA:

hamar urterako Alemaniako zorrak aldaketarik gabe gabe naitu zuen astea, nahiz eta hegazkortasunik ez zen gaita izan EBZren bileraren ondoren. Periferikoen aldetik, Italiako hauteskundeetako emaitzak gorabehera, Espainiako arrisku-prima 11 op murriztu zen. AEBetan, dolar-merkatu amerikarraren indarrak errentagarritasunen opera ekarri zuen. Alemaniako hamar urterako tasak 3 op egin zituen gora, % 2,89raino. Kredituak, bestalde, operatzen egin zuen eta bere diferentzialak estutu zituen.

BISAK/LEHENGAIK:

oroaren balioa apenas aldatu zen dolarraren aldean, dolar truke-tasa 1,23 \$/€-an geratu zen. Lehengaietan, berriz, petrolioaren prezioa % 1,33 handitu zen. Libiako petrolio-hobi baten itxierak eta Estatu Batuen zulaketa puruaren gutxitzeak kotizazioari lagundu zitoten. Urrea, bestalde, ez zuen ia aldaketarik izan: 1.323,30 tonantz.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa % Astean	Ald. 2018
MSCI WORLD (Local)	1.605,32	2,91	1,21
IBEX 35	9.686,10	1,63	-3,56
DJ EURO STOXX 50	3.420,54	2,88	-2,38
DJ STOXX 50	3.016,37	2,57	-5,08
FTSE	7.224,51	2,19	-6,03
S&P 500	2.786,57	3,54	4,22
Dow Jones	25.335,74	3,25	2,49
NASDAQ	7.560,81	4,17	9,52
NIKKEI 225	21.469,20	1,36	-5,69
MSCI GORAKORRAK (Lo)	62.931,41	1,77	3,37
MEXBOL	48.556,45	2,12	-1,62
BOVESPA	86.371,41	0,71	13,05
SHANGHAI	3.463,81	1,62	0,01
Errusia Rts Mosku	1.285,53	1,89	11,36

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald
ALEMANIA 2 URTE	-0,56	0,00	0,07
ESPAINIA 2 URTE	-0,25	-0,04	0,10
AEB 2 URTE	2,26	0,02	0,38
ALEMANIA 10 URTE	0,65	0,00	0,22
ESPAINIA 10 URTE	1,44	-0,11	-0,13
AEB 10 URTE	2,89	0,03	0,49
ALEMANIA 30 URTE	1,30	-0,01	0,03
ESPAINIA 30 URTE	2,48	-0,09	-0,37
AEB 30 URTE	3,16	0,02	0,42
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 12/22	50,53	-3,79	5,61
MARKIT ITRX EUR XOVER	254,44	-18,09	22,01

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald
Dolarra / Euroa	1,23	0,05	2,46
Yena / Euroa	131,57	1,21	-2,80
Libera / Euroa	0,89	-0,54	0,03

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald
Petrolio (Brendt)	65,28	1,33	-2,30
Urrea	1.312,30	0,04	1,55



Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.